



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ERABAKIA, 2022ko irailaren 23koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IKERTZAILE DOKTORE IRAUNKORRAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2022ko uztailaren 20ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle ikertzaile doktorearen plaza betetzeko (2022ko abuztuaren 10eko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Lehiaketan Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun baliouduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiak jakin dezaten.

Leioa, 2022ko irailaren 23koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko otailaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C

FEDERICO RECART

(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por


30628936C FEDERICO

RECART (R: Q4818001B)

Fecha: 2022.09.23

08:15:32 +02'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00084-1. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Medikuntza. Saila: Medikuntza. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Hirueleduna (euskera/gaztelera/ingeleza). Arduraldia: Osoa. Ikertzaile profila: "Gaixotasun Hepatikoak".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: MARIA JESUS PERUGORRIA MONTIEL
NAN: ***4114**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez